

196. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Aldaketa klimatikoaren
kalteak murriztea,
denon erronka**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47



Ale honetan zer?

Energia portala	3
Abiapuntua	6
Udaletxea	8
Igerilekua	10
Led Argiteria	11
Euronet 50/50	12
Ekindar	13
Auto elektrikoak	14
Energia azterketa	15

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.

Energia kontsumoa aztergai

Azpeitiko energia atariak herriko eraikin eta azpiegitura publikoen energia kontsumo datuak biltzen ditu webgune baten bitartez. Horrela, udal-eraikinen energia-kontsumoa ezagutarazi eta energia-eraginkortasunaren arloan hartzen diren neurrien emaitzak kuantifikatzen dira. Web orria etengabe elikatzen da fakturazio energetiko datuen bitartez, Informazio eta Komunikazio Teknologietan oinarritutako plataforma baten bidez. Plataforma horrekin, udalak fakturazio energetikoa kontrolatu, horniduren kontratazioa kudeatu, optimizatu eta eraikinen eta argi-koadroen portaera energetikoa aztertu dezake. Halaber, Udalaren energia fakturaren gastua eta aurreko urtearekin izan duen bilakaera ezagutzeko aukera ematen du.

Datuei erreparatuz gero, gainera, nazioartean ezarritako 2018. urteko erreferentzia datarekin konparatzen da etengabe. Urte horrekiko eginiko aldaera ematen da ezagutzera. Hona hemen, atarian herriko azpiegitura publikoen baitan bildutako daturik esanguratsuenak.

Energia atariak eraikin bakoitzaren energia-kontsumoak modu errazean ikusteaz gain, herritarrak zentzuzko energia erabilera izan dezaten sentsibilizatzea ere badu helburu, bai udal-ekipamenduen erabiltzaile gisa (kiroldegia, kultura-zentroa, etab.), baita beraien etxeetan egiten duten kontsumoan ere.


Azkenik, aipatu behar da, portalean Udalaren energia-kontsumoa beste udalerri batzuenarekin alderatzen dela eta hainbat datu interesgarri ematen da, adibidez, egindako kontsumoagatik atmosferara zenbat CO2 isuri den.



%10 MURRIZTU DA KONTSUMOA

Nazioarteko parametroetan, 2018a hartzen da energia kontsumoaren murrizketa neurtzeko erreferentzia urte gisa. Azpeitiko erakin eta azpiegitura publikoetako kontsumoa €10 murriztu da 3 urtean. Azken urtebetean, 5.644.358 kW/h energia kontsumitu da.


Kontsumo horren eraginez, **566,41** tona CO2 isuri dira eta **154** hektarea baso behar dira xurgatzeko. Kontsumo altueneko hilabeteak negukoak izan ohi dira, azarotik otsailera edo martxora bitartekoak. Eta kontsumo txikienekoak, udakoak, berriz.




ARGITERIA ETA ERAKIN PUBLIKOAK

Bi zatitan banatu daiteke udalaren energia kontsumoa: eraikin publikoetakoa eta argiteriarena. Kontsumo guztiaren %21a argiteria publikoarena da; eta, %79a ekipamendu publikoetakokoa.

Ekipamendu publikoko energiaren %40a kirol azpiegiturretara bideratzen da, %18a kultur espazioetara, %18a hezkuntza eraikinetara %7a bulegoetara eta %20a beste eremuetara.






LED ARGITERIAREN GARRANTZIA

Energiaren kontsumoa, gehienbat argiterian murriztu da %19a murriztu da. Horretarako garrantzitsua izaten ari da argiteria publikoan LED argiteria jartzeko konpromisoa.

ENERGIAREN AURREZPENA

Igerilekua da herriko erakin publikoetan energia kontsumo handiena duena. Hala ere, 2018tik gaur egun arte aurrezpen handiena izan duen eraikina ere

bera da. Beraz, azken urteotan egindako geotermia zein eguzki plaken instalakuntzek energiaren kontsumoa murrizten eta erakin jasangarriagoa egitea egiteko tresna erakinkorrak izaten ari dira.



Eredu eta alternatiba berriak sortzen

Energia kontsumoari alternatiba berriak bilatzeaz gain, herriko gune berdeen zaintza eta erabilera bultzatu, bizikletaren erabilera sustatu asmoz bidegorri sarea handitu eta azpiegitura eta zerbitzu publikoko jasangarriagoak izateko neurriak hartu ditu azken urteotan udalak

Ertz askotariko gaia da energiarena. Energiatz ari garenean, elektrizitateaz eta erregai fosilez ari gara. Eta horrek, herritarren egunerokoarekin lotura zuzena du, ezinbestean.

2016ean, Parisko Hitzarmena sinatu zuten munduko 176 estatuk; berotze globalaren baitako inoizko akordiorik handiena izan zen. Nazio Batuen Klima Aldaketari Buruzko hitzarmena izan zen, hain zuzen ere. Akordio horren helburua negutegi efektua geldiaraztea da, Lurraren tenperatura bi gradu baino gehiago ez igotzea, alegia. Bi gradu horiek mugarri gorri bezala ikusten baitira planetaren etorkizuna bermatzeko.

Energiaren kontsumoa ezinbestean jaitsi beharra dago mundu mailan, energia baliabide naturalak gero eta gutxiago direlako, eta planeta beraren etorkizuna ere kolokan jartzen duelako, adituen arabera.

TXIKITIK ERAGITEN

Udalak Azpeitiaren jasangarritasuna eta ingurumenaren zaintza helburu izanik, azken hamarkadan pauso garrantzitsuak eman ditu. Energia kontsumoari alternatiba berriak bilatzeaz gain, eraikin publikoen efizientzia energetikoa hobetu, herriko gune berdeen zaintza eta erabilera bultzatu, bizikletaren erabilera sustatu asmoz bidegorri sarea handitu eta azpiegitura eta zerbitzu publikoko jasangarriagoak izateko neurriak hartu ditu. Hala, gaur egun, duela hiru urte baino %10 elektrizitate gutxiago kontsumitzen du udalak, besteak beste.

Aitor Bereziartua Ingurumen zinegotziaren arabera, "pauso garrantzitsuak" eman dira: "Proiektu pilotuen bidez, geotermia sistema jarri genuen igerilekuan eta Ekoetxean, ondoren etorri dira plaka fotovoltaikoen



Aitor Bereziartua. Ingurumen zinegotzia

hainbat proiektu eta bagoaz aurrera". Bere hitzetan, "aurrera egitea bera" garrantzitsua da. "Helburuak beteko baditugu, proiektu jasagarri ugari beharko ditugu, eta erakunde publikoak dagokigu eredu izan eta energia jasagarriaren aldeko apustuak egitea", gaineratu du.

Baliabide publikoetan ezarritako neurriez gain, ordea, sentsibilizazioan eragin eta herritarrek ere energiaren kontsumoa murrizteko neurriak hartzeko laguntzak ere bideratzen ditu udalak. Hala nola, etxe-atariak berritzeko diru-laguntzen baitan efizientzia energetikoa bermatzeko laguntza gehigarri bat du udalak. Eta, sustapen ekonomikoko laguntzen barruan, energia berriztagarrien aldeko apostuak ere laguntzen dira diruz.

EZINBESTEAN, NEURRIAK HARTU BEHARRA DAGO.

Bai, noski. Guztioi dagokigu neurri zehatzak hartzea. Bakoitzak beretik, energia kontsumoa murrizteko ahalegin guztiak egin beharra daukagu.

UDALA ARI DA NEURRIAK HARTZEN, EZTA?

Bai urte dezente dira energiaren kontsumoa murrizteko asmoz buru-belarri gabiltzala.

Proiektuz proiektu bagoaz aurrera, eta gaur duela 10 urte baino energia gutxiago kontsumitzen dugu. Horretarako proiektu eta baliabideak jartzen ari da udala eta hemendik 10 urtera gaur baino gutxiago kontsumitzea da helburua.

HERRITARREK ERE BADUTE ZER ESANIK ARLO HONETAN.

Noski. Energiaren kontsumoa guztiok, ia edozein unetan murriztu dezakegu. Bide horretan, garrantzitsua da, gure etxe eta eraikinetako efizientzia energetikoa hobetzea. Zenbait ohitura aldatzean datza gakoa. Guztion esku dago planetaren etorkizuna. Horren kontzentzia izan behar dugu.

EKINDARREN BIDEZ, PROIEKTUAN ERABAT INPLIKATUKO DIRA HERRITARRAK.

Bai, pauso garrantzitsua izango da Ekindar, energiaren, eta batez ere, elektrizitatearen merkatu logikarekin hausteko. Herritarrak energia kontsumitzaile izatetik energia sortzaile izatera pasatuko dira. Elektrizitatea bezalako gai konplexu batean herritarrak ahalduntzeko aukera eskainiko du proiektuak.



Udaletxeko energiaren %30a teilatuan sortzeko apustua

129 eguzki plaka jarri dira udaletxeko teilatuan, eraikinean bertan behar den energiaren %30a bertan sortzeko



**Eguzki-instalazio
fotovoltaikoak
kontrol, kudeaketa
eta monitorizazio
telematikoko
sistema bat du**

Azpeitiko Udalak energiaren inguruan egindako azterketa eta lanketen baitan, trantsizio energetikoan pauso bat gehiago eman eta autokontsumorako bide bat gehiago egiteko helburuarekin udaletxeko teilatuan eguzki-plakak jarri berri ditu. Aurrez ere, teilatuan hainbat plaka jarrita zeuden 2005. urtean. Orain instalazioa handitu eta egokitu egin da.

Proiektu berriaren bidez, 129 eguzki-panel fotovoltaiko instalatuko dira udaletxeko teilatuan. 1.342 metro koadroko azaleran jarri dira eta 40 kWn-ko eguzki-instalazio fotovoltaikoa egin eta abian da. Energia sortu ahala kontsumituko da eraikinean bertan eta obrak Ekilor Energias Renovables SL-k egin ditu lanak. Plaka instalatzeko 80.604,30€ko inbertsioa egin du Azpeitiko Udalak.

Eguzki-instalazio fotovoltaikoak kontrol, kudeaketa eta monitorizazio telematikoko sistema bat du. Eguzki-instalazio fotovoltaikoa monitorizatzeko urrutiko sistemak eta datalogger bat eta web zerbitzari bat izango ditu, datu guztiak denbora errealean ikusteko.

Era berean, eraikinaren kontsumo osoa kontrolatzeko, kudeatzeko eta monitorizatzeko sistema telematikoa ere instalatu da. Sistema hori adarkagarria da, eta kontsumo handieneko puntuen eskari elektrikoetan, gas-instalazioan eta ur-kontsumoetan eragin dezake. Eraikinaren energia-kontsumoak plataforma kontrolatzeko, kudeatzeko eta monitorizatzeko sistema aurreratua du, beraz. Plaka horien bidez, udaletxeko eraikinean behar den energiaren %30a bertan sortzea lortu nahi da. Hala, 33.749,82 kW sortzeko helburuarekin jarri da abian proiektu berria.





Esperientzia pilotuak eraikin publiko gero eta jasangarriagoak izateko

Oraindik ere igerilekua bada ere kontsumo altuena duen eraikina, azken urteotan hartutako neurrien arabera, kontsumoa gehien murriztu duen eraikina ere bada

Estalitako igerilekuak izan ohi dira herri guztietan kontsumo energetiko handiena duten eraikinak. Azpeitian ere horrela da, eta duela zenbait urtetatik, hainbat proiektu garatu dira energia jasangarria sortu eta kontsumoa murrizteko. Hala, oraindik igerilekua bada ere kontsumo altuena duen eraikina, azken urteotan hartutako neurrien arabera, kontsumoa gehien murriztu duen eraikina ere bada.

GEOTERMIA ETA EGUZKI PLAKAK

2013-2014 urte inguruan hasi zen eraikinaren kanpo zein barneko eraldaketa.

Lehenik Barrenetxe auzoko ur-termalak erabiliz energia kontsumoa gutxitzea lortu zen, sistema geo-

termiko pilotu baten bidez. Horrekin batera, behar berriei erantzuteko handitze eta berritze lanak ere jarri zituzten abian.

Energia aurrezteko bide horretan, beste pauso garrantzitsu bat ere eman zen 2019an. Hala, igerilekuko aislamendua eraberritu eta autokontsumorako eguzki plakak jarri ziren teilatuan. Horretarako, 1.300.000€ko inbertsioa egin zuen udalak.

ERAIKIN JASANGARRIAGOAK

Energia arloan eginiko inbertsioen emaitzak ikusteko denbora behar izaten da. Igerilekuko datuak begiratzera koan, kontuan izan behar da, 2013an, 3.000 metro karratu inguru zituela, eta orain, 4.000 inguru dituela. Azken urteotan, metro karratuko 342 kWh gutxiago kontsumitzen da; hau da, metro karratuko %44 jaitsi da kontsumoa. Fakturan, berriz, metro karratuko 28,2 euro ari da aurrezten Udala. Aurrezteaz gain, CO2 gutxiago isurtzen da airera, gainera.



1.059 LEd argi instalatuko dira

2014tik ari da urtez urte udala ohiko argiteria LED argiekin ordezkatzeko, energia kontsumoa gutxitu eta CO2 isuria gutxitzeko helburuarekin. Datorren urtean 1.059 LED luminaria ezarriko ditu udalak eta 755.727,97€ko inbertsioa egitea aurreikusten du.

Azpeitiko Udalak kaleko argiteria berritzen jarraitu eta ohiko luminaria LED argiekin ordezkatzeko proiektu berria osatua du; hala, energiaren kontsumoa gutxitzeko. Faseka ari da 2014tik argiteria aldatzeko prozesua. 2021. urtean, argiteria aldatzen segitzeko konpromisoari eutsiz, Europar Batasunak karbono gutxiko ekonomiara igarotzea errazten duten toki-erakundearen proiektu bereziei ematen dizkien zuzeneko diru-laguntzetara aurkezteko proiektua prest du Udalak, eta deialdia irten zain dago aurkezteko.

Udalak osatutako proiektuak 755,727,97€ ko aurrekontua du, eta inbertsio horrekin, besteak beste 1.059 luminaria berri jarriko dira.

Proiektu horren helburua ohiko luminarien ordezkari LED luminariak jarri, telekudeaketako eta fluxu erregulazioko sistema berria ezartzea da, kale argitze sistemak duen potentzia instalatua jaitsiz energia gutxiago

kontsumitzeko; hau da, berotegi efektua eragiten duten gasen isuria gutxitzeko.

1.059 luminariak aldatzean eta proiektua gauzatuta, 324.203kwh aurreztuko dira urteko; dirutan, 45.697 euro aurreztuko dira. Berotegi efektua eragiten duten gas isuria ere 179.287 Kg CO2-an gutxituko da urteko. Udal argiztapena hobetzean fotosintesiaren arazketa-efektua, gutxi gorabehera, 356 zuhaitzek egiten duten antzekoa litzateke.

2014TIK ARGITERIAN NEURRIAK HARTZEN

Azpeitiko Udala 2014an hasi zen herriko luminaria LED argiteriagatik aldatzen. Ordutik, 2.500 LED argi jarri dira. Guztira 742.814€ko inbertsioa egin du; proiektua gauzatzeko 210.351€ko laguntza jaso du. Energia kontsumoari dagokionez, 2014an baino %30 gutxiago kontsumitu zen 2020an; 2014 urtearekin alderatuz 76.213€ aurreztu da 2020an urteko fakturan, inbertsio horri esker. Hala, iazko kontsumoa 1.308.346Kwh-ekoa izan zen.

2014arekin alderatuz berotegi efektua eragiten duten isuria 315.124 Kg CO2tan gutxitu da 2020 urtean. Beste era batera esanda, udal argiztapen publikoa hobetzearekin urtero 626 zuhaitzek egingo luketen fotosintesiaren arazketa-efektuaren emaitza lortu da.

Txikitatik sentsibilizazioan eragiten

Txiki-txikitatik energia kontsumoaren jakitun izan eta murrizteko neurriak hartzeko helburuarekin, Euronet 50/50 max proiektua abian dago herriko ikastetxetan



Energia murrizteko udalak azpiegitura publikoetan hartzen dituen neurriez gain, ezinbestekoa da sentsibilizazioan eragin eta herritarrek ere energiaren kontsumoa jaisteko ahaleginak egitea. Bide horretan, txiki-txikitatik energia kontsumoaren jakitun izan eta murrizteko neurriak hartzeko helburuarekin, Euronet 50/50 max proiektua abian dago herriko ikastetxetan. Udalarekin Agenda 30aren baitan, elkarlanean, energiaren kontsumoaren kontrola ematen dute.

Horretarako, besteak beste, geletan termometroak izaten dituzte temperatura neurtzeko. Hala, gelako temperatura hotzegia edo beroegia den kontrastatu eta energiaren kontsumoa murrizteko beharrezko neurriak hartzen dituzte. Beraz, Euronet 50/50 programak kontzientzia landu eta energia aurrezteko bideak erakusten dizkie ikasle eta ikastetxeei. Gaur egun, 500 ikastetxetik gorak hartzen dute parte proiektuak; horien artean daude Urola BHI Ikastola, Karmelo Etxegarai Ikastola, Iraurgi Ikastetxea, Azpeitiko Ikastola Ikasberri.

2019/2020 ikasturtean, proiektua ikastetxeei aurkeztu zitzairen eta horrekin batera hasierako lanak abian jarri ziren. Ikastetxe bakoitzak Energia Taldea osatua du

eta beren eraikinaren energia diagnostikoa egin. Ondoren, eta informazio horretatik abiatuta, energia kontsumo arduratsuagoa egiteko bideratutako Plan bat egin eta zabaldu behar dute, ikasle, irakasle eta gainontzeko eragileen inplikazioa lortu ahal izateko. Azkenik, horren guztiaren emaitzak kalkulatu behar dira, hau da, argindarra eta erregai edo gas kontsumoa murriztu ote den aztertu.

PROIEKTUA EZAGUTZERA EUROPATIK

Resource proiektu europarraren baitan, Euronet proiektua ezagutzen izan ziren egitasmoan parte hartzen duten erakunde desberdinetako kideak. Iraurgi Berritzenen bidez antolatutako bisita, gazteen artean hezkuntzari eta ingurumen sentsibilizazioari buruzko esperientziak trukatzeko helburuarekin egin zen.

Herritarrak energia burujabe izateko helburuarekin sortu da Ekindar kooperatiba



2022an jarriko da abian proiektua eta Azpeitiko 400 bat familiari beren energia modu jasangarrian sortu eta kontsumitzeko aukera eskainiko dio.

Eredu publiko komunitario bidez, plaka fotovoltaikoak jarriko dira herriko 400 familia ingururen energia beharrei erantzuteko. Maiatzean aurkeztu zuten Azpeitiko Ekindar kooperatiba sortu berria. Aurrez, otsailean, Ekio-la egitasmoa; horren baitan sortu ba Ekindar herritarren autokontsumorako energia sortzeko lehen kooperatiba.

Energia sortzeko helburu orokorretatik harago energiaren arloan Km0 proiektua abian jarri da energia berriztagarriak sortzeko, Azpeitiko lurretan bertan izateko energia instalazioa. 400 familia ingururentzat sortuko da elektrizitatea eta bazkide bakoitzak bere behar energetikoei erantzuteko izango da.

Kooperatiba, herritarren esku, bazkideen esku, egongo da. Eta herritarren sentsibilizazioa eta ahalduntzea ere bultzatuko du jardunaldiak edo dinamika desberdinak antolatuz eta gauzatuz. Anbizio handiko

Eredu publiko komunitario bidez sortuko den energia autokontsumorako proiektu aintzindaria da

egitasmoa da eta herritarren partehartzea izango da proiektuaren arrakastarako oinarria. Honela, energiaren alorrean herri gisa ditugun beharrei ekinbide propioz erantzuteko pausoa izango da.

MARTXAN DEN PROIEKTUA

Proiektuaren sustatzaile nagusiak, Azpeitiko Udala, Energiaren Euskal Erakundea eta Klean ingeneritza kooperatiba dira. Horietaz gain, ordea, Bertan Merkatarik elkartea, Artxara kooperatiba, Kulturaz kooperatiba, Usurbilgo Lanbide Eskola, Urola BHI Ikastola, Karmelo Etxegarai ikastola, Ikasberri Azpeitiko Ikastola eta Iraurgi ikastetxeak ere proiektua babesten dute.

2022an kooperatiba energia sortzen hastea da helburua. Hektarea inguruko energia baratza egingo da. Bertan 1,2 megawatt energia sortuko dira.



Auto elektrikoaren aldeko apustua

Bestelako energia eredu baten aldeko apustua egiteko helburuarekin, Azpeitiko Udalak 2016. urtean lehen auto elektrikoa erosi zuen, udaltzaingorako. Ordutik, beste bat ere badu bere ibilgailu parkean.

Azpeitiko Energia Plana egina du udalak energiaren kontsumo arduratsuago eta jasangarriago baten aldeko eman beharreko pauso eta proiektuak zehazteko.

Hala, Udaltzaingorako kotxe berria erosi beharra izan, eta kotxe elektrikoaren aldeko apustua egin du. Horrela kotxeak gasolinarik ez gastatzeaz gain, CO₂ isuriak nabarmen gutxiago isurtzen dituzte airera.

Kotxeak kargatzeko puntua eraikin aurrean dute, eta bertako energia Sindikatu zaharreko teilatuan dauden plaketatik etortzen da.

IBILGAILU ELEKTRIKOAGATIK HOBARIAK

Ibilgailu parke publikoan elektrikoaren alde egiteaz gain, herritarrek ere ibilgailu elektrikoaren aldeko apustua eginez, Azpeitia jasangarriago bat izatearen alde

egin dezaten hobariak ditu. Bere ordenantza fiskaletan, ibilgailu elektriko eta hibridoentzako hobaria du Udalak. Hala, trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergan, ibilgailu elektrikoek %90eko hobaria dute, eta hibridoek %50ekoa.

BI KARGAGAILU ELEKTRIKO

Auto elektrikoaren erabilera sustatzeko hartutako beste neurrietako bat, herrian bi kargagailu elektriko jartzearena izan da. Lehenengoa, azoka plazaren ondoan ezarri zen. Ondoren, igerileku ondoan, Sanjuandegin jarri zen bigarrena.

Gasolinarik ez gastatzeaz gain, CO₂ isuriak nabarmen gutxiago isurtzen dituzte airera auto elektrikoek

Energia-auditoriak egiten ari da udala azpiegitura publikoetan, etorkizuneko erronkak definitzeko

Efizientzia energetikoa eta energia berriztagarrietarako proposamenak ere egingo dizkio enpresak udalari.

Azpeitiko Udala energia eta emisioak guxtitzen joateko helburu horretan. Datozen erronkak zehazteko asmoz, herriko hainbat eraikinetako auditoria energetikoak egiten ari da.

Soreasu antzokiko, Karmelo Etxegarai ikastolaren Perdillegiko eta Euskal Herriako eraikinetako, Udaletxeko, Perretxikoko, Izarraitz pilotalekuko, igerilekuko, kiroldegiko, eta Enparan-dorretxeko energiaren kontsumoa aztertzeke lanean ari da, zehazki.

Otsailaren 21eko 4/2019 Legearen arabera, 70 kWtik gorako potentzia termikoa duten administrazio publikoen eraikinek auditoretza energetikoak egin behar dituzte. Beraz legea bete eta datozen urteotan arlo horretan eman daitezkeen pausoak zehaztuko ditu udalak.

Auditoria energetikoa egiteaz Letter Ingenieros enpresa arduratuko da eta 16,076.3 eurotako aurrekontua izango du. Enpresa hori arduratuko da aipatutako eraikin horietako energia-auditoriak egiteaz eta hobekuntzarako planen proposamenak ere egin beharko ditu. Hau da,

Egindako auditoretza energetikoetatik abiatuta, jarduera plan energetiko bat garatuko dute.

AZTERTU BEHARREKOA

Auditoria energetiko horietan, besteak beste, azken 12 hilabeteetako fakturazio energetikoa aztertuko da; elektrizitatearena eta erabiltzen diren erregaia. Horretaz gain, instalazioen erabilera-ohitura esanguratsuenak erregistratu, ebaluatu eta aztertuko dituzte.

Elektrizitatearen kurba lortuko dute eta energia-kontsumoaren banaketa kalkulatu beharko dute, besteak beste.

Egindako azterketaren baitan, efizientzia energetikoa eta energia berriztagarrietarako proposamen zehatzak ere egingo dizkio enpresak udalari. Hala, Energia-eraginkortasuneko neurriak zehatz-mehatz jakinaraziko zaizkio eta horiek ezartzea errentagarria eta bideragarria den ere aztertu beharko da, ondoren, hobekuntzak ezartzeko proiektuak egin eta esleitzeko.

The background of the entire page is a close-up photograph of two white LED light bulbs resting on a vibrant green lawn. One bulb is in the foreground, held by a person's fingers, while the other is slightly behind it and to the left. The text is overlaid on the left side of the image.

Ingurumenaren zaintza
Jasangarritasuna
Klima aldaketa
Berotegi efektuari
aurre egitea

Guztion esku dago